**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO IJITO HERRIAREN ERABATEKO SUSTAPENERAKO ETA PARTAIDETZA SOZIALERAKO KONTSEILUAREN OSOKO BILKURAREN AKTA**

**(2010eko uztailaren 14ko bilera)**

**Dei-egilea:**

**Presidentea:**
**Gemma Zabaleta andrea** Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburua

**Bertaratuak:**

**Alfonso Gurpegui jauna** Gizarte Zerbitzuen zuzendaria.

**Ignacio Rodríguez jauna.** Kultura Saila

**Cándido Hernández jauna.** Hezkuntza Saila.

**Luisa Mari Puertas andrea.** Hezkuntza Saila.

**Marta Etxebarria andrea.** Enplegu Saila.

**Ana Isabel García Maté andrea.** Herrizaingo Saila

**Bakarne Uriarte andrea.** Osasun Saila.

**Maite Santamaría andrea.** EMAKUNDE-Emakumearen Euskal Erakundea.

**Begoña Zugadi andrea.** EMAKUNDE-Emakumearen Euskal Erakundea.

**Begoña Moraza andrea.** Arabako Foru Aldundia.

**Eugenio Peñas jauna.** Gipuzkoako Foru Aldundiak

**Saioa Otxoa de Alda andrea.** EUDEL Erandioko Udala.

**Ricardo Ituarte jauna.** EUDEL. Santurtziko Udala.

**Olga Borja andrea.** Gao Lacho Drom Elkartea

**Pascual Borja jauna**. Gao Lacho Drom Elkartea

**Eduardo Motos jauna.** Barakaldoko Ijitoen Elkartea.

**Rafael Giménez jauna.** Gipuzkoaren Etorkizunerako Ijito Elkartea.

**Valentín Jiménez jauna.** Iniciativa Gitana Elkartea.

**Manuel Vizarraga jauna.** Kalé Dor Kayiko Elkartea.

**José Ramón Jiménez jauna (✞)..** Kamelamos Adikerar Elkartea.

**Susana Mouron andrea.** Kamelamos Adikerar Elkartea.

**Julia Jiménez andrea.** Romí Bidean Elkartea.

**Victoria Jiménez andrea.** Sim Romí Elkartea.

**Nuria de la Cruz andrea.** Secretariado Gitano Fundazioa

**Mónica Guitera andrea**. Gipuzkoako Gizarte Langileen Elkargoa, Gizarte Zerbitzuetako Euskal Kontseiluaren ordezkari gisa.

**ACTA DEL PLENO DEL CONSEJO PARA LA PROMOCIÓN INTEGRAL Y PARTICIPACIÓN SOCIAL DEL PUEBLO GITANO EN EL PAÍS VASCO**

**(Reunion del día 14 de julio de 2010)**

**Convoca:**

**Presidenta:**
**Dª. Gemma Zabaleta.** Consejera de Empleo y Asuntos Sociales

**Asistentes:**

**D. Alfonso Gurpegui.** Director de Servicios Sociales.

**D. Ignacio Rodríguez.** Departamento de Cultura

**D. Cándido Hernández.** Departamento de Educación.

**Dª. Luisa Mari Puertas.** Departamento de Educación.

**Dª Marta Etxebarria.** Departamento de Empleo.

**Dª. Ana Isabel García Maté.** Departamento de Interior.

**Dª. Bakarne Uriarte.** Departamento de Sanidad.

**Dª. Maite Santamaría.** EMAKUNDE-Instituto Vasco de la Mujer.

**Dª. Begoña Zugadi.** EMAKUNDE-Instituto Vasco de la Mujer.

**Dª. Begoña Moraza.** Diputación Foral de Álava.

**D. Eugenio Peñas.** Diputación Foral de Gipuzkoa.

**Dª. Saioa Otxoa de Alda.** EUDEL. Ayuntamiento de Erandio.

**D. Ricardo Ituarte.** EUDEL. Ayuntamiento de Santurtzi.

**Dª. Olga Borja.** Asociación Gao Lacho Drom.

**D. Pascual Borja**. Asociación Gao Lacho Drom.

**D. Eduardo Motos.** Asociación de Gitanos de Barakaldo.

**D. Rafael Giménez.** Asociación Gitana por el Futuro de Gipuzkoa.

**D. Valentín Jiménez.** Asociación Iniciativa Gitana.

**D. Manuel Vizarraga.** Asociación Kalé Dor Kayikó.

**D. José Ramón Jiménez (✞).** Asociación Kamelamos Adikerar.

**Dª. Susana Mouron.** Asociación Kamelamos Adikerar.

**Dª. Julia Jiménez.** Asociación Romí Bidean.

**Dª. Victoria Jiménez.** Asociación Sim Romí.

**Dª Nuria de la Cruz.** Fundación Secretariado Gitano

**Dª Mónica Guitera**. Colegio de Trabajadores y Trabajadoras Sociales de Gipuzkoa, en representación del Consejo Vasco de Servicios Sociales.

**Ángel Manero jauna.** Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritza. Kontseiluaren Idazkaritza Teknikoa.

**Mª Carmen Jiménez andrea.** Kontseiluaren Idazkaritza Teknikoa.

**Javier Pérez jauna**. Kontseiluaren Idazkaritza Teknikoa.

**Ezin etorria adierazi dutenak:**

**Bartolomé Jiménez jauna.** Kontseiluko presidenteordea. Gao Lacho Drom Elkartearen presidentea.

**Fernando Fantova jauna.** Gizarte Gaietako sailburuordea.

**Ignacio de la Puerta jauna.** Etxebizitza Saila.

**Jon Etxebarria jauna.** Bizkaiko Foru Aldundia.

**Emilia Cortés andrea.** Chanelamos Adiquerar Elkartea.

**Conchi Franco andrea.** Cáritas Gipuzkoa.

**Begoña Lasa andrea.** Enseñantes con Gitanos (Adarra kolektibo pedagogikoa).

Eguna: 2010eko uztailaren 14a
Ordua: 12:00ak
Lekua: 6. aretoa - Lakua Eusko Jaurlaritza (Gasteiz)

**Gai-zerrenda:**

1. Aurreko bilkurako akta (2009/11/16) onartzea, hala badagokio
2. Euskal Autonomia Erkidegoko Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako Kontseilua:
   a. Ordezkaritza soziala, presidenteordetza eta foroetako partaidetza eguneratzea.
   b. Batzordeak.
3. Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako II. Euskal Plana:
   a. Jarraipen-egutegia.
   b. 2010. urtean abian diren edota aurreikusten diren jarduera estrategikoak eta jarduera pilotuak.
4. Informazio interesgarria:
   a. Ijito Herriaren Estatuko Kontseilua.
   b. Ijito Herriaren Garapenerako Jarduera Plana 2010-2012.
5. Galdera-eskaerak.

**D. Ángel Manero.** Dirección de Servicios Sociales. Secretaría Técnica del Consejo.

**Dª. Mª Carmen Jiménez**. Secretaría Técnica del Consejo.

**D. Javier Pérez**. Secretaría Técnica del Consejo.

**Excusan su asistencia:**

**D. Bartolomé Jiménez.** Vicepresidente del Consejo. Presidente de la Asociación Gao Lacho Drom.

**D. Fernando Fantova.** Viceconsejero de Asuntos Sociales.

**D. Ignacio de la Puerta.** Departamento de Vivienda.

**D. Jon Etxebarria Orue.** Diputación Foral de Bizkaia.

**Dª Emilia Cortés.** Asociación Chanelamos Adiquerar.

**Dª. Conchi Franco.** Caritas de Gipuzkoa.

**Dª. Begoña Lasa.** Enseñantes con Gitanos (Colectivo Pedagógico Adarra)

Día: 14 de julio de 2010
Hora: 12:00 de la mañana
Lugar: Sala 6 – Lakua. Gobierno Vasco (Vitoria-Gasteiz)

**Orden del día:**

1. Aprobación si procede del Acta del Pleno ordinario anterior (16/11/2009)
2. Consejo para la promoción integral y participación social del Pueblo Gitano en el País Vasco:
   a. Actualización de la representación social, la Vicepresidencia y la participación en foros.
   b. Comisiones.
3. II Plan Vasco para la promoción integral y participación social del Pueblo Gitano:
   a. Calendario de seguimiento.
   b. Actuaciones estratégicas y actuaciones piloto en marcha y/o previstas para 2010.
4. Información de interés:
   a. Consejo Estatal del Pueblo Gitano.
   b. Plan de Acción para el Desarrollo del Pueblo Gitano 2010-2012.
5. Ruegos y preguntas.

**Bileraren garapena:**

Ongietorria egiteko Alfonso Gurpeguik bertaratutakoei egindako agurrarekin hasi da bilera, eta aurkezpen-txanda bat izan da ondoren. Ondoren, osoko bilkura lehen seihilekoa ixteko ekitaldi gisa aurkeztu du, Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako II. Euskal Plana zer izaten ari den laburtzeko.

1. ***2009ko azaroaren 16an egindako aurreko bileraren akta, hala badagokio, onartzea.***

Begoña Lasak (Adarra kolektibo pedagogikoa - Enseñantes con Gitanos) jakinarazitako ohar bat eman da aditzera, Galdera-eskaerak atalean hark izandako mintzaldi bati buruz. Aldaketa gaineratu da eta akta onartu egin da besterik gabe.

2. ***Euskal Autonomia Erkidegoko Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako Kontseilua***

Ordezkaritza sozialaren eguneratzeari eta horren ondoriozko osaerari buruzko informazioa eman du Kontseiluaren Idazkaritza Teknikoak. Kontseiluaren ordezkaritza sozialaren errepasoa egin du Alfonso Gurpeguik, ijito-elkarteei zein ijitoen aldeko elkarteei dagokienez, eta ongietorria egin die inkorporazio berriei.

Gai horri dagokionez, Oscar Vizarragak eskatu du zehatzago argitu behar dela zer ulertu behar den "ijitoen aldeko" partaidetza sozialeko elkarte edo erakundetzat, etorkizunean nahasteak saihesteko, berriki buruturiko hautaketa-prozesuan gertaturikoak bezala.

Erakunde sozialek Manuel Vizarraga (Kalé Dor Kayikó Elkartea) Kontseiluko presidenteorde izendatzeko harturiko erabakiaren berri eman da. Alfonso Gurpeguiren gonbitaren eskutik, Manuel Vizarragak hartu du hitza bere burua aurkezteko, ordura arte izan duen ibilbidea eta Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako II. Planaren gainerako indarraldirako bere konpromisoa adierazita. Era berean, Bartolomé Jiménezi (Gao Lacho Drom Elkartea) eskertu dio gaur arte bere karguan erakutsitako dedikazioa.

Manuel Vizarragak jakinarazi du, halaber, Planarekin konprometituriko erakundeetako arduradun politiko gorenekin elkarrizketak izateko asmoa duela, Kontseiluaren osoko bilkuretara bertara daitezen zein Planarekiko duten konpromisoa gogorarazteko. Bere asmoa zera da, erabat ezinbestekotzat jotzen diren Planaren jardun nagusiak (10.a, 15.a, 19.a) burutu ahal

**Desarrollo de la reunión:**

La reunión comienza con un saludo de bienvenida por parte de Alfonso Gurpegui a las y los asistentes y da paso a una ronda de presentaciones. A continuación presenta el pleno como cierre del primer semestre con objeto de hacer una recapitulación de lo que está siendo el desarrollo del II Plan Vasco para la promoción integral y participación social del Pueblo Gitano (II PVPG).

***1. Aprobación si procede del acta de la sesión anterior, de fecha de 16 de noviember de 2009.***

Se comunica una apreciación notificada por Begoña Lasa (Colectivo Pedagógico Adarra – Enseñantes con Gitanos) en relación con una intervención suya el apartado de Ruegos y preguntas. Se incorpora el cambio y se aprueba el acta sin mayor dilación.

***2. Consejo para la promoción integral y participación social del Pueblo Gitano en el País Vasco.***

Se informa por la Secretaría Técnica del Consejo de la actualización de la representación social y la composición resultante. Alfonso Gurpegui repasa la composición de la parte social del Consejo, tanto en lo que se refiere a asociaciones gitanas como progitanas, dando la bienvenida a las nuevas incorporaciones.

Oscar Vizarraga en relación con este asunto solicita que se clarifique con mayor precisión que se ha de entender por asociaciones u organizaciones de participación social ‘progitanas’ para evitar en el futuro confusiones como las generadas en el proceso de selección recientemente llevado a cabo.

Se informa del acuerdo adoptado por las organizaciones sociales en el sentido de designar a Manuel Vizarraga (Asociación Kalé Dor Kayikó) como Vicepresidente del Consejo. Atendiendo a la invitación de Alfonso Gurpegui interviene Manuel Vizarraga para presentarse haciendo mención a su trayectoria y a su compromiso para el período restante de vigencia del II PVPG. Agradece igualmente a Bartolomé Jiménez (Asociación Gao Lacho Drom) su dedicación en el cargo hasta la fecha.

Informa también Manuel Vizarraga de su intención de mantener una ronda de entrevistas con los máximos responsables políticos de las instituciones comprometidas con el Plan tanto para que asistan a los plenos del Consejo como para recordarles su copromiso con el Plan. Su propósito es que al menos

izatea gaur egun EAEn bizi diren 15.000-20.000 ijitoen bizi-baldintzak hobetzeko.

Alfonso Gurpeguik Planarekin konprometituriko agente guztien erantzukizuna onartu du eta eskatu du aktan jasota gera dadila Kontseilu osoaren esker ona Bartolomé Jiménezekiko, erakutsi duen dedikazioa dela-eta.

Idazkaritza Teknikoak horri buruz igorritako testuari jarraiki, beste kontsulta-organo batzuetan Kontseilu hau ordezkatzeko beste hautaketa batzuk eguneratzeko proposamenei buruzko informazioa eman da: Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseilua, Gizarteratzeko Euskal Kontseilua eta Ijito Herriaren Estatuko Kontseilua.

Komunikazio horren haritik, Pascual Borjak bere haserrea adierazi du Gizarteratzeko Euskal Kontseiluaren hurrengo bilkuran parte hartzeko ezarri dioten modua dela-eta, hau da, botorik gabe, eta baita hitzik gabe ere. Azkenean, guztia gaizki-ulertu bat izan da, Alfonso Gurpeguik bilkuran bertan adierazi duenez, dagozkion kontsultak egin ondoren.

Bertaratu diren jakinarazitako izendapenak ontzat eman dira eta Kontseiluaren batzordeen jardueraren azaleko laburpena egin da, igorritako informazio-idazkia erreferentziatzat hartuta, Mª Carmen Jiménezen mintzaldi batekin Genero Indarkeriaren Biktimei Arreta emateko Zuzendaritzarekin zabalduriko harremanari buruz, aurkezpen-bilera izan baitugu Zuzendaritza horrekin, eta eskertzekoa da erakutsi duen jarrera proaktiboa eta laguntzeko prest egotea, betiere harreman onen barruan.

José Ramón Jiménezek, dokumentuan adierazitako alderdietako bati dagokionez, zehazki Europako Ekialdetik datozen ijitoen EAEko udalerrietako asentamenduen kasuen esku-hartzeari dagokionez, bere iritzia adierazi du, hau da, esku-hartzeak ezin du bertako ijitoekin egin denaren antzekoa izan, batzuen eta besteen mentalitatea erabat desberdina delako. Europako Ekialdetik datozen ijitoek, haren iritziz, ez-ijito edo ijito ez diren pertsona gisa ikusten dituzte hemengo ijitoak.

***3. Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako II. Euskal Plana.***

Batzorde Iraunkorrak proposaturiko jarraipen-egutegia oinarritzat hartuta egin da gairako sarrera.

Enplegu- eta prestakuntza-arloan garatzen den jarduerari buruzko informazioa eman du Marta Etxebarriak. Horren inguruan, jakinarazi du badela 2009. urteaz geroztik hitzarmen bat Secretariado Gitano Fundazioarekin Acceder Programaren inguruan, orientazioko, prestakuntzako eta lan-bitartekaritzako jardunak biltzen dituena eta Europako

las actuaciones principales del Plan, 10, 15, 19, aquellas que se entiendan absolutamente imprescindibles, puedan llevarse a cabo para mejorar las condiciones de vida de los 15.000-20.000 gitanos que actualmente residen en la CAPV.

Alfonso Gurpegui reconoce la responsabilidad que todas y todos los agentes comprometidos con el Plan tienen y pide que conste en acta el agradecimiento del Consejo en su conjunto a Bartolomé Jiménez por su dedicación.

Apoyándose en el texto remitido al efecto por la Secretaría Técnica se informa de las propuestas de actualización de otras designaciones para la representación de este Consejo en otros órganos consultivos: Consejo Vasco de Servicios Sociales, Consejo Vasco de Inclusión Social y Consejo Estatal del Pueblo Gitano.

Al hilo de esta comunicación Pascual Borja muestra su malestar por la forma en que se ha invitado a que tome parte en la próxima sesión del Consejo Vasco de Inclusión Social, no solo sin voto sino también sin voz. Al final todo resulta ser un malentendido según informa en la propia sesión Alfonso Gurpegui después de haber hecho las consultas pertinentes.

Se dan por buenos los nombramientos comunicados por parte de las y los asistentes y se hace un somero repaso de la actividad de las comisiones del Consejo tomando como referencia el escrito informativo remitido, con una intervención por parte de Mª Carmen Jiménez en relación a la relación abierta con la Dirección de Atención a Víctimas de Violencia de Género con la que se ha mantenido una reunión de presentación y respecto de la cual se agradece su actitud proactiva y dispuesta a la colaboración y a una relación fluida.

José Ramón Jiménez, en relación con uno de los aspectos mencionados en el documento, en concreto el que se refiere a la intervención en casos de asentamientos colectivos en municipios de la CAPV de personas gitanas procedentes de Europa del Este, expone su opinión en el sentido de que la intervención no puede ser la misma que con los gitanos autóctonos porque la mentalidad de unos y otros es totalmente distinta. Los gitanos que provienen de Europa del Este, en su opinión, ven a los gitanos de aquí como payos.

***3. II Plan Vasco para la promoción integral y participación social del Pueblo Gitano.***

Se introduce el tema a partir del calendario de seguimiento propuesto por la Comisión Permanente.

Marta Etxebarria informa de la actividad que se

Gizarte Funtsaren laguntza ere jasotzen duena, eta zenbait datu ekarri ditu artaturiko pertsonei, prestakuntza-jardueretako parte-hartzaileei eta abarri buruz, betiere gaur egun arteko datuak. Sailak 2010. urtean hitzarmen hori atxikitzeko duen borondatea ere agertu du, eta jardun horiek eta beste batzuk berrikusi eta balorazio global bat egitekoa ere bai, enplegu-politiken aribideko transferentzia-prozesuaren esparruan. Kasu honetan, ijito-biztanleriari bereziki zuzenduriko jardunen ebaluazioa egitea da asmoa, izaera unibertsaleko euskal enplegu-zerbitzu baten testuinguruan eman daitezkeen berezitasunak aztertzeko. Informazioa eman du, halaber, Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen duten pertsonekin Lanbideren zortzi bulegotan martxan jarritako jardun bati buruz, eta jardun horren bidez, haien premiei ematen zaien erantzunak dagokien gizarteratze-prozesurako arreta lan-merkaturako sarbidearekin lotu nahi du.

Gizarte Gaietako Sailaren konpromisoa aipatu du Alfonso Gurpeguik, ez bakarrik sailaren eskumen-esparruari dagozkion jardunen inguruan, baita laguntza emanez ere Kontseiluaren Idazkaritza Teknikoaren bidez eta partaidetza bikoitzarekin Batzorde Iraunkorrean, hau da, Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzaren zuzeneko ordezkaritzarekin eta Idazkaritzaren bidez.

Ijitoekin izan beharreko esku-hartzearen arloan jardunbide egokiei buruzko informazioa partekatzeko sailaren webgunea erabiltzeko aurreikuspenari buruzko informazioa ere eman du, betiere arreta berezia emanez gure hurbileneko ingurunean burutzen diren jardunei, sailak horien ezarpenean moduren batean edo bestean parte hartzen duela kontuan izanda.

Azkenik, uste du egokia dela ijitoen elkarte-mugimenduan burutzen ari den gogoeta-prozesua ijito-komunitateari loturiko elkarte guztien ordezkaritza moduren baten egokitasunari eta hori sortzeko baldintzei buruz, betiere elkarte horiek guztiak bere baitan bilduta. Uste du prozesu hori lagungarri izan litekeela elkarte-mugimendua sendotzeko eta iragarri du saila prest dagoela horretan laguntzeko elkarteek hori modu positiboan balioesten badute.

Foru Aldundiaren ekimenez Gipuzkoako Lurralde Historikoan burutzen diren zenbait jardunei buruzko informazioa eman du Eugenio Peñasek. Genero-indarkeriaren biktimentzako arretan hobekuntza-proposamenak jasotzeko eta horien ezarpena balioesteko prest dagoela adierazi du. Haurrei arreta emateko arloan garatzen diren jardunak ere azaldu ditu, ijito-adingabeekin izan beharreko esku-hartzera egokituriko berariazko programa pare bat bilduta, eta aipaturiko Acceder Programarako egindako ekarpena

desarrolla en materia de empleo y formación. A este respecto comunica la existencia desde 2009 de un convenio con la Fundación Secretariado Gitano en relación con el Programa Acceder que comprende actuaciones de orientación, formación e intermediación laboral, y que recibe también soporte del Fondo Social Europeo, y aporta algunos datos sobre personas atendidas, participantes en actividades de formación, etc. hasta la fecha. Muestra también la voluntad del Departamento de mantener dicho convenio en 2010 y de revisar esta y otras actuaciones y hacer una valoración de conjunto en el marco del proceso de transferencia en curso de las políticas de empleo. La intención es hacer una evaluación de las actuaciones específicamente dirigidas, en este caso, a la población gitana para abordar especificidades que puedn darse en el contexto de un servicio vasco de empleo de carácter universal. Informa también de una actuación en marcha en ocho oficinas de Lanbide con personas perceptoras de RGI de modo que la respuesta que se da a sus necesidades trata de vincular la atención a su proceso de inserción con el acceso al mercado laboral.

Alfonso Gurpegui hace mención al compromiso del Departamento de Asuntos Sociales no solo en lo que se refiere a las actuaciones que son propias de su ámbito de competencia, también prestando asistencia a través de la Secretaría Técnica del Consejo y participando por partida doble, con representación directa de la Dirección de Servicios Sociales y a través de la Secretaría, en la Comisión Permanente.

Informa también de la previsión de utilizar el espacio Web del Departamento para compartir información relativa a buenas prácticas en materia de intervención con personas gitanas, prestando atención en particular a aquellas actuaciones que se llevan a cabo en nuestro entorno más inmediato y en cuya implementación el Departamento participa de algún modo.

Finalmente considera pertinente el proceso de reflexión que se está llevando a cabo en el seno del movimiento asociativo gitano en torno a la oportunidad y condiciones de creación de alguna forma de representación del conjunto de asociaciones vinculadas a la comunidad gitana que las aglutine. Entiende que este proceso puede ayudar a fortalecer el movimiento asociativo y anuncia la disposición del Departamento a colaborar en el mismo si las asociaciones lo valoran positivamente.

Eugenio Peñas informa de algunas de las actuaciones que se llevan a cabo en el TH de Gipuzkoa por iniciativa de la Diputación. En el caso de la atención a víctimas de violencia de género traslada la disposición a recibir propuestas de mejora y a valorar su implementación. Expone además las actuaciones

Gipuzkoan atxikitzeko.

Era berean, informazioa eman du gizarteratze-prozesuetan laguntzeko etxebizitza- eta alojamendu-sare bati buruz, beren erabiltzaileen artean ijitoak/ijito-familiak biltzen dituen sareari buruz. Azkenik, Iniciativa Gitana elkartearen laguntzarekin kudeatzen duten laguntza sozioedukatiboko programa aipatu du, baita elkarte-mugimendua sendotzeko jardunak ere.

Arabako Foru Aldundiak sustaturiko jardunak aurkeztu ditu Begoña Morazak, eta horien artean daude lurralde horretan Acceder Programa sendotzea eta ijito-komunitateari eman beharreko arreta, Gao Lacho Drom Elkartearekin lankidetzan, atal horretan oso askotariko jardunak bilduta, honako hauek, besteak beste: droga-gaietan eman beharreko arreta, ijitoei/ijito-familiei eman beharreko oinarrizko arretan, haur-babesgabetasuneko egoeran/arriskuan dauden adingabeentzako arreta espezializatua.
Jardun horiei landa-ingurunean buruturiko beste jardun batzuk gehitzen zaizkie, hala nola Oionen ijito-asoziazionismoa indartzea eta gizarteratu eta laneratzearen esparruan lan egiten duten beste gizarte-erakunde batzuekin —Sartu aipatu du— lankidetzan aritzea, hainbat herritan egindako jardunak ere bilduta, eta Bastida aipatu du horien artean.

Osasun Txartel Indibidualen kudeaketari dagokionez lankidetza-proposamen bat helarazteko zenbait elkarterekin izandako harremanei buruzko informazioa eman du Bakarne Uriartek. Aurreikusitako ekimen batzuetarako baliatu ahalko litzatekeen diru-laguntza bide bat badagoela ere jakinarazi du, nahiz eta deialdi horren hasierako orientazioa osasun-esparruko profesionalei eta profesionalen zein eraginpeko eta senitartekoen elkarteei zuzenduta dagoen.

Osasunaren Hezkuntzaren arloan izandako jardunei buruzko informazioa ere eman du, osasun-zentroekin lankidetzan buruturikoak, eta Irunen programa pilotu bat 2011n abiarazteko aurreikusitako jardunari buruz ere bat, oraindik ere diseinu-fasean dagoena, ziur asko Gipuzkoaren Etorkizunerako Ijito Elkartearekin lankidetzan, hainbat arlo bilduko dituena: programaturiko kontsultetara bertaratzea, haurdunaldien jarraipena eta arreta pediatrikoa, osasun-aseguramendua eta Osasun Txartel Indibidualen kudeaketa, besteak beste.

Bileran parte hartzeko duen aukera dela-eta pozik dagoela adierazteko hartu du hitza Cándido Hernándezek. Ijitoen sustapen pertsonal eta kolektiboan hezkuntzak duen funtsezko egitekoa azpimarratu du, eta epe luzerako prozesu batean bildu du. Ildo horretan, ijitoak zein elkarteak aurrera egiteko eta egungo egoera gainditzeko egiten ari diren

que se desarrollan en materia de atención a la infancia, incluyendo un par de programas específicos adaptados a la intervención con menores gitanos, y su contribución al mencionado Programa Acceder para su mantenimiento en Gipuzkoa.

Asimismo informa de una red de viviendas y alojamientos de apoyo en procesos de incorporación social que contemplan entre sus usuarios a personas/familias gitanas. Finalmente, hace mención al programa de acompañamiento socioeducativo que gestionan en colaboración con Iniciativa Gitana, y a las actuaciones dirigidas al fortalecimiento asociativo.

Begoña Moraza presenta las actuaciones promovidas por la Diputación Foral de Álava-Araba, entre las que se incluye la consolidación del Programa Acceder en ese Territorio, la atención a la comunidad gitana en colaboración con la Asociación Gao Lacho Drom, incluyendo en este apartado muy diversas actuaciones (entre otras: atención en materia de drogodependencias, atención básica a personas/familias gitanas, atención especializada a menores en situación/riesgo de desprotección infantil).

Se suman a estas otras actuaciones en el ámbito rural, de fortalecimiento del asociacionismo gitano en Oion, por ejemplo, y de colaboración con otras organizaciones sociales –cita Sartu- que trabajan en el ámbito de la inserción sociolaboral, incluyendo actuaciones en diversas localidades entre las que cita Labastida.

Bakarne Uriarte informa de contactos mantenidos con algunas de las asociaciones para trasladar una propuesta de colaboración en lo que se refiere a la gestión de las TIS. Comunica también la existencia de una vía subvencional a la que podría recurrirse para algunas de las iniciativas previstas, si bien la orientación inicial de esa convocatoria se dirije a profesionales del ámbito sanitario y asociaciones tanto profesionales como de afectados y/ familiares.

Informa también de actuaciones puntuales de Educación para la Salud en colaboración con centros de salud y de la previsión de puesta en marcha en 2011 de un programa piloto en Irun, todavía en fase de diseño, en colaboración previsiblemente con la Asociación Gitana por el Futuro de Gipuzkoa y que comprendería diversas materias: asistencia a consultas programadas, seguimento de embarazos y atención pediátrica, aseguramiento sanitario y gestión de TIS entre otras.

Cándido Hernández interviene para expresar su satisfacción por poder participar en la reunión. Subraya el papel clave de la educación en la

ahaleginez jabetu da, eta KDK sariak jarri ditu adibide gisa, ez soilik elkartearen jardunbide egoki baten adibide gisa, baita ijito-ikasleen aurrerabidearen erakusgarri gisa ere. Ahaleginak fokalitzatzeko ideia partekatu du, betiere eskola-arrakasta hobetzeko erronkari eutsiz, Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako II. Planean jasotarikoari jarraiki.

Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako II. Planak biltzen dituen aurreikuspenekin loturiko martxan dauden jardunak adierazi ditu ondoren. Ijito-ikasleen eskolatzearen hobekuntza-programari dagokionez, datorren ikasturtean aplikatzeko prestaturiko zirriborro dokumentu bati buruzko informazioa eman du; jardun batzuk baino ez litzaioke faltako dokumentu horri eta, Luisa Mari Puertasek adierazi duenez, bilerara bertaraturiko zenbaitek parte hartu dute, parte-hartze prozesu ireki bat izan baita, elkarteen eta eskola-esparruko beste agente batzuen esku-hartzearekin.

Eskola-porrota duten ijito-ikasleen indize handiko zentroetako jardunari dagokionez, hezkuntza-ikuskaritzaren beharrezko lankidetza azpimarratu du eragina duten aldagaien azterketa zehatza egiteko, joera hori mozteko betiere. Luisa Mari Puertasen jardunari dagokionez, adierazi eta eskertu egin du elkarteen beharrezko laguntza ijito-ikasleen eskolatzea hobetzeko jardunak orientatzen dituen datuak biltzeko.

Zentro horien eraldaketa-bideei dagokienez, Cándido Hernándezek uste du ez dagoela gehienbat baliabideen baitan, eta garrantzitsuagoa dela, aldiz, zentroetan dauden pertsonek zentroaren proiektuarekiko duten konpromisoa. Ikaskuntza-komunitateei buruzko aipamenarekin hornitu du komentarioa, eta adierazi duenez, zentroen sari hori gehitzea da erronka.

Luisa Mari Puertasek bere mintzaldia osatu du Eskola 2.0 programaren aipamena eginez, eta ijito-ikasleen presentzia handia duten zentroei arreta berezia emateko duten asmoa adierazita, teknologia berrien ezarpenaren helburua egia izan dadin. Aipatu du, halaber, Sailak Batzorde Iraunkorrean parte hartzeak Kontseiluarekiko eta Planarekiko duen konpromisoaren adierazgarri dela. Azkenik, gogorarazi du badela diru-laguntza deialdi espezifiko bat elkarteei laguntzeko ijito-familiekin eta haien haurrekin.

Kultura Saila burutzen ari den zenbait jardun aipatu ditu Ignacio Rodríguezek, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak eta zenbait ijito-elkarteren arteko lankidetza-proposamenei eman beharreko laguntza barne, hezkuntza-astialdia eta ijito-komunitatearekiko esku-hartzean duten egitekoa aztertzeko. Kulturkliken Euskadiko Ijito Herriaren iturri historikoei buruzko dokumentua, eta argitalpenei eta irakurketa-materialei

promoción personal y colectiva de los gitanos y gitanas, y lo enmarca en un proceso a largo plazo. En este sentido reconoce los esfuerzos que tanto las personas gitanas como las asociaciones vienen haciendo para avanzar y superar la situación actual, y pone los premios KDK como ejemplo, no solo de una buena práctica por parte de la asociación, sino también como muestra del avance del alumnado gitano. Comparte la idea de focalizar los esfuerzos manteniendo siempre presente el reto de mejorar el éxito escolar, tal como enuncia el II PVPG.

Desgrana a continuación las actuaciones en marcha en relación con las previsiones que comprende el II PVPG. Respecto del programa de mejora de la escolarización del alumnado gitano informa de un documento borrador preparado para aplicar el curso próximo en el que faltarían por matizar apenas algunas de las actuaciones y en el que, según precisa Luisa Mari Puertas, han participado algunos de los y las presentes en la reunión, dado que ha habido un proceso abierto de participación en el que han intervenido las asociaciones y otros agentes del ámbito escolar.

En cuanto a la actuación en centros con alto índice de alumnado gitano con fracaso escolar subraya la necesaria cooperación de la inspección educativa para realizar un análisis pormenorizado de las variables que influyen de modo que se pueda atajar esa tendencia. En relación con esta actuación Luisa Mari Puertas señala -y agradece- la necesaria colaboración de las asociaciones para recoger datos que orienten las actuaciones dirigidas a la mejora de la escolarización del alumnado gitano.

Respecto a las vías de trasnformación de esos centros Cándido Hernández considera que no se trata tanto de una cuestión de recursos cuanto de compromiso de las personas que están en los centros con el proyecto del centro. Ilustra el comentario con la mención a las comunidades de aprendizaje y dice que el reto está en incrementar esa red de centros.

Luisa Mari Puertas complementa esta intervención con una mención al programa Eskola 2.0 y el propósito de prestar atención especial a centros con presencia significativa de alumnado gitano para que el objetivo de la implantación de las NNTT sea una realidad. También hace mención a que la participación del Departamento en la Comisión Permanente es una muestra de su compromiso con el Consejo y el Plan. Finalmente, recuerda la existencia de una convocatoria específica de subvención con objeto de apoyar a las asociaciones en el trabajo con las familias gitanas y sus criaturas.

Ignacio Rodríguez enumera algunas de las actuaciones que desde el Departamento de Cultura se

buruzko katalogoa argitaratzeko aurreikuspena ere iragarri du. Aurreikusitako beste jardun batzuei dagokienez, aurten oraindik argitaratzeke dauden festibalak egiteko laguntzen deialdia da iradokitako formula.

Ana Garcíak dagozkien jardunen erakusgarri bezala jarri ditu genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei eman beharreko laguntza-aginduak eta emakumezko biktimei arreta-programak garatzeko elkarteei eman beharreko laguntza-aginduak, eta bere zuzendaritzak jarduera-ildo horretara emakumezko ijitoen elkarteak gaineratzeko duen interes berezia ere adierazi du.

Maite Santamaríak bitan laburbildu ditu Emakundek kontuan hartu beharreko eskumenak dituen esparruak: genero-indarkeria eta gizarte-partaidetza. Biei dagokienez, Emakundek eskaintzen dituen diru-laguntza lineak gogorarazi ditu, eta emakumezko ijitoen elkarteen aldetik izandako eskaeraren gorakada nabarmenari buruzko informazioa eman du. Elkarte horiekin duen harreman ona ere aipatu du, eta Mª Carmen Jiménezen bideratzaile-lana.

Batzorde Iraunkorrean emakumezko ijitoen elkarterik ez egotea helburu handiago baten testuinguruan gainditu beharreko gaia dela adierazi du, hau da, genero-ikuspegia Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako II. Planera gaineratzea, hain zuzen ere.

Azalpen-fasea amaitutakoan, izandako mintzaldiak eskertu ditu, jakinarazitako ezin etorriak bere gain hartu ditu eta eztabaida-txanda bat ireki du.

Pascual Borjak adierazi du berrikuntza eta konpromisoa falta dela erantzukizun politikoa dutenen aldetik, eta, besteak beste, diru-laguntza lineek izandako murrizketa deigarria da horren isla, zenbait kasutan % 50era iritsi baita.

Gizarte Gaien kasuan, behar bezala justifikatu gabeko murrizketak aipatu ditu ("dirua azalpenen truke", eskaini du), kezka politikoak non dauden adierazten duen erakusle argia, urte askotako lana kareletik behera botata.

Enpleguari dagokionez, uste du bideraturiko diru-kopuruak ez direla egokiak aurre egin beharreko erronkarako. Ijitoak lan-merkatuan berdintasun-egoeran sartzea egia izan dadin ijito-elkarteek nahitaez parte hartu behar dute enplegu-politiken diseinuan.

Hezkuntzari dagokionez, adierazi du elkarteentzako laguntzen murrizketak bitartekoen murrizketa dakarrela, eta, horrenbestez, arreta-aukerena ere bai, horrek abiarazitako prozesuetan duen eraginarekin.

están llevando a cabo, incluyendo el apoyo a las propuestas de colaboración entre el Consejo de la Juventud de Euskadi (EGK) y algunas asociaciones gitanas para abordar el tiempo libre educativo y su papel en la intervención con la comunidad gitana. También anuncia la previsión de publicar en Kulturklik el documento sobre fuentes históricas del Pueblo Gitano en el País Vasco y el catálogo de publicaciones y materiales de lectura. En relación con otras actuaciones previstas la fórmula sugerida es la convocatoria de ayudas para la celebración de festivales aún pendiente de publicación este año.

Ana García pone como muestra de las actuaciones que les competen las órdenes de ayudas a mujeres víctimas de violencia de género, y de ayuda a asociaciones para el desarrollo de programas de atención a mujeres víctimas, manifestando el especial interés de su Dirección por incorporar a esta línea de actividad a las asociaciones de mujeres gitanas.

Maite Santamaría resume en dos los ámbitos en que Emakunde tiene competencias que procede considerar: violencia de género y participación social. En relación con ambos recuerda las líneas subvencionales que se ofrecen desde Emakunde e informa de un significativo aumento de la demanda por parte de las asociaciones de mujeres gitanas. También hace mención a una relación fluida con dichas asociaciones y al papel facilitador de Mª Carmen Jiménez.

Señala la ausencia de asociaciones de mujeres gitanas en la Comisión Permanente como una cuestión a superar en el contexto de un objetivo de más envergadura, que no es otro que incorporar la perspectiva de género en el II PVPG en su conjunto.

Finalizada esta fase expositiva Alfonso Gurpegui agradece las intervenciones, disculpa las ausencias ya notificadas y abre un turno de debate.

Pascual Borja señala que falta innovación y compromiso por parte de quienes tienen la responsabilidad política, que se refleja entre otros aspectos en el llamativo recorte de las líneas de subvención que alcanza el 50% en algunos casos.

En el caso de Asuntos Sociales habla de reducciones insuficientemente justificadas (“Cambio dinero por explicaciones”, ofrece), fiel reflejo de dónde están las inquietudes políticas, que vienen a echar al traste el trabajo de muchos años.

En cuanto a Empleo opina que las cantidades destinadas no son acordes para el reto que se tiene entre manos. Para que sea una realidad el acceso de las personas gitanas en condicones de igualdad al mercado laboral urge la participación de las

Esan du faltan hartzen duela Etxebizitza Sailaren parte-hartzea duela lau urtetik hona, baita sailaren konpromisoa ere, zenbait familia kalean geratzen ari baitira eta ez zaie inolako alternatibarik eskaintzen. Haserre dago Etxebizitza Sailak ijitoak/ijito-familiak eraginpean hartzen dituzten arazoak dituenean elkarteetara jotzen duelako, baina alderantziz gertatzen denean, ordea, ez da ezertaz arduratzen.

Oso modu positiboan balioetsi du Foru Aldundien egitekoa, horiek ari baitira direnak eta ez direnak egiten, Eusko Jaurlaritzaren sailak baino inplikazio handiagoarekin, bere ustetan.

Oro har, erabateko ziurgabetasuna nagusi dela adieraziz amaitu du, arazoak dituen jende asko kalean baitago eta konponbide gutxi eskaintzen baitira.

Manuel Vizarragak adierazi du ados dagoela Pascual Borjak azaldutakoarekin. Egoera horri erantzunez, uste du esfortzuak jardun gutxitan kontzentratzea dagokiola, baina aldi berean irmoak ere izango direnak, eta eska daitezkeen emaitzak ere definitzea. Planak ikuspegi desberdina izan dezala, konpromiso politiko sendoarekin. Bestela, laguntza ekonomikoak irregularrak badira, esku-hartzeak ere irregularrak izango dira, eta ezin da espero horrelako esku-hartzeetan arrakastarik izatea.

Cándido Hernándezek eskatu du ez fribolizatzeko laguntzen murrizketaren inguruan. Harturiko neurriak egungo krisi-testuinguruan kokatzen ditu, sail bakoitzaren esku-hartzea eraginpean hartzen duten laguntzen murrizketa ere bilduta, saila bere jardunak nahitaez birdoitu beharko dituelarik. Birdoitze horrek eraginpean harturiko guztiek bere kezka adierazi dute, eta ulertzekoa da hori, baliabide gutxiagorekin jarduteko aukerak gutxiago direla aurreratzen duen neurrian. Ulertzen du elkarteen haserrea, baina azpimarratu du ez dagoela inolako diskriminazio-traturik haiekiko, eta, aitzitik, aplikazio orokorreko irizpide bat dela .

Azaldutakoari gehitu dio berak dakiela ez dagoela ijito-ikaslerik ezein ikastetxetan arreta egokia jasotzen ez duenik, eta ijito-elkarteei eskatu die horrelako egoeren berri izanez gero, jakinarazi diezaiotela.

Alfonso Gurpeguik uste du, adierazitako haserrea gorabehera, ez dugula urtebete galdu. Plan batek ez du azkar batean desabantaila historikoko egoera bat konpontzen; adostu eta adierazitako norabidean lanean jarraitu behar dugu, eta konpromisoan sakondu. Jabetzen da zenbait planek —hala nola Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako II. Planak— zeharkako jardun ugari biltzen dituztela, eta batzuetan zaila dela plan horiek beste agente batzuen plangintza estrategikoetan uztartzea.

asociaciones gitanas en el diseño de las políticas de empleo.

Por lo que toca a Educación señala que la reducción de ayudas a las asociaciones conlleva una reducción de medios y por tanto de posibilidades de atención, con el efecto que esto tiene sobre los procesos ya en marcha.

Dice llevar echando en falta la participación del Departamento de Vivienda desde hace 4 años, y de su compromiso, cuando hay familias que se quedan en la calle sin que se les ofrezca alternativa alguna. Se muestra molesto porque cuando el Departamento de Vivienda tiene problemas que conciernen a personas/familias gitanas recurre a las asociaciones, pero que cuando es a la inversa se desentiende.

Valora muy positivamente el papel de las Diputaciones Forales, que son las que realmente están poniendo todo de su parte, con más implicación en su opinión que los Departamentos de Gobierno Vasco.

En general, concluye definiendo la situación como de absoluta incertidumbre, con mucha gente en la calle con problemas y con pocas soluciones que se aportan.

Manuel Vizarraga manifiesta su acuerdo con lo expuesto por Pascual Borja. En respuesta a esa situación opina que procede concentrar los esfuerzos en pocas actuaciones pero contundentes y definir los resultados exigibles. Que el Plan tenga otra perspectiva diferente, con un compromiso político potente. De lo contrario la traducción en apoyos económicos irregulares hace que las intervenciones sean igualmente irregulares, sin que pueda esperarse el éxito de actuaciones así.

Cándido Hernández pide no frivolizar en lo que se refiere a la reducción de las ayudas. Enmarca en el contexto actual de crisis las medidas tomadas, que incluyen una reducción de las ayudas que afectan al conjunto de la intervención de cada Departamento, que se ve forzado a reajustar sus actuaciones. Todo el mundo afectado por ese reajuste traslada su preocupación, lo cual es comprensible, en la medida que con menos recursos anticipa que las posibilidades de actuación son menores. Entiende el malestar de las asociaciones, pero subraya que no hay ningún trato discriminatorio para con ellas, sino que se trata de un criterio de aplicación general.

Añade a lo expuesto que no tiene noticia de que ningún alumno gitano o gitana no reciba la atención adecuada en ningún centro escolar, y pide a las asociaciones gitanas que de tener noticia de situaciones así se le comuniquen.

Diru-laguntzei dagokienez, azaldu du sailak eman duen bira, lehendik argitalpenean bertan iragarritakoa, diru-laguntzak gizarte-ekimen pribatuentzako laguntza partzial gisa kontuan hartzea, lurraldez gaindiko jardunei eman nahi zaien lehentasuna eta jardun horiei eman nahi zaien lehiaketa-izaera. Sailak bere gain hartzen duen erronkak premiei arreta emateko helburuak bete behar ditu, eta ez elkarteak pozik utzi. Gizarte-gaietako diru-laguntzek berrikuntza balioetsi nahi dute erakundeen aldetik, eta ezin ditu bildu administrazio arduradun bakoitzak hornitu beharreko Gizarte Zerbitzuen katalogora gaineraturiko jardunak.

Pascual Borjak 649/2009 Dekretuan Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako II. Planaren aipurik ez egotea sentitu du, eta Alfonso Gurpeguik absentzia hori justifikatu du dekretuak zeharkako lerroak aipatzen dituelako, ez kolektiboak.

Oscar Vizarragak dio beste kolektibo batzuk esplizituki aipatzen direla eta, horrenbestez, arretagai berezitzat hartzen direla. Uste du onespen esplizitUrik ez izateak atea zabaltzen duela besteek gauzak gure ordez egin ditzaten, eta parte hartzeko aukerak ere mugatzen ditu, ez soilik diru-laguntzaren xede direnen bezalako jardunetan, baita parte hartzeko beste foro eta gune batzuetan ere. Sentitzen du, gainera, beste antzeko organoetan parte-hartze aktiboa duten hainbat agente Kontseilu honetara ez bertaratzea.

Alfonso Gurpegui jabetzen da parte-hartze organoek eraginpeko sentitzen diren pertsona eta kolektibo guztiak gogobetetzeko dituzten zailtasunez. Ordezkatzen dituzten kolektibo eta erakunde guztiek uste dutenez, berezitasunaren nondik norakoa horrelakoa da, ezen berariazko arreta behar duen, eta sarritan jasotzen duten tratamenduarekiko gogobeteta ez egotea da horren ondorioa.

Gai-zerrendaren 4. puntuan jasotako informazioei arreta handiagoa eskaintzeko denborarik gabe, eta bertaratuen galdera-eskaerarik gabe, Alfonso Gurpeguik bilera amaitutzat eman du 14:10ean.

Alfonso Gurpegui considera que pese al malestar expresado no estamos ante un año perdido. Un plan no resuelve rápidamente una situación de desventaja histórica; debemos continuar trabajando en la dirección acordada y señalada y persistir en el compromiso. Reconoce las complicaciones de desarrollo de planes como el II PVPG que comprenden un buen número de actuaciones trasnversales a veces de difícil encaje en las planificaciones estratégicas de otros agentes.

En relación con las subvenciones explica el giro dado por el Departamento anunciado ya en la propia publicación, el sentido de las subvenciones como apoyo parcial a iniciativas sociales privadas, la prioridad que se pretende dar a actuaciones supraterritoriales y el carácter concursal de las mismas. El reto que se marca el Departamento pasa por cumplir con los objetivos de atención a necesidades, no por cumplir con las asociaciones. Las subvenciones en materia de servicios sociales tratan de poner en valor la innovación por parte de las organizaciones, y no pueden comprender actuaciones incorporadas al Catálogo de Servicios Sociales que cada una de las administraciones responsables debe proveer.

Pascual Borja lamenta la ausencia de mención al II PVPG, y a las personas gitanas en definitiva, en la redacción del Decreto 649/2009, ausencia que Alfonso Gurpegui justifica porque el Decreto hace mención a líneas trasnversales, no a colectivos.

Oscar Vizarraga dice que otros colectivos sí están mencionados explícitamente y son considerador por tanto objeto de atención diferenciada. Entiende que esta ausencia de reconocimiento explícito abre la puerta a que otros hagan las cosas por nosotros y limita las oportunidades de participación, no solo en actuaciones como las que son objeto de subvención, también en otros foros y espacios de participación. Lamenta además las ausencias en este Consejo de agentes que sí participan activamente en otros órganos similares.

Alfonso Gurpegui reconoce la dificultades que conllevan los órganos de participación para satisfacer a todas las personas y colectivos que se sienten afectados. Todos los colectivos y las organizaciones que los representan entienden que la particularidad que los caracteriza es de tal categoría que requiere una atención específica y a menudo eso se traduce en una insatisfacción por el trato que reciben.

Sin tiempo para dedicar mayor atención a las informaciones enunciadas en el punto 4 del orden del día y sin ruegos y preguntas por parte de las y los asistentes Alfonso Gurpegui da por concluida la reunión a las 14:10.